

## Izurtzako Foroaren Akta

### Acta del foro de Izurtza

<b>Data/Fecha:</b>	<b>Ordua/Hora:</b>	<b>Lekua/Lugar:</b>
10/12/2013	19:05-20:20	Udaleko Plano Aretoa/ Salón de Plenos de Ayto.

Udaletxea/Ayuntamiento	Herritarrak/Ciudadanía	Aholkularitza enpresa/Empresa consultora
<ul style="list-style-type: none"> <li>Luis Ballarin (Alkatea/Alcalde)</li> <li>Nerea Zarrabeitia (Zinegotzia/Concejal)</li> <li>Oskar Zarrabeitia (Zinegotzia/Concejal)</li> <li>Pedro Jose Jaio (Zinegotzia/Concejal)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>3 herritar / 3 ciudadanos-as</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jon Arrugaeta (Siadeco)</li> </ul>

#### 1. Ongietorriak eta foroari sarrera

Aholkularitza enpresako teknikariak hasiera ematen dio Foroari bertaratutakoei ongietorria eta eskerrak emanez. Jarraian aurkezpenak egin eta saioari hasiera ematen zaio. Bilera Tokiko Agenda 21aren eremuan kokatzen da. Eguneko gai-zerrenda eta foroaren helburu nagusiak aipatzen dira.

#### 1. Bienvenida e introducción al Foro

El técnico de la empresa consultora comienza la reunión dando la bienvenida y agradeciendo a las personas presentes su asistencia. Seguidamente, se realizan las presentaciones pertinentes y la introducción al foro. A continuación se contextualiza el encuentro dentro del marco de la Agenda Local 21. Se procede a la presentación del orden del día y de los objetivos del foro.

#### 2. Tokiko Agenda 21 eta herritarren parte-hartze foroa

Gaiaren kokapen modura, Tokiko Agenda 21aren xede eta irismenak aipatzen dira eta partehartze foroaren helburu nagusia ere bai. Helburu hori TA 21aren prozesua Izurtzako herritarrei zabaltzea litzateke, gaiaren inguruko eskaera eta proposamenak egiteko aukera emanez, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio kanal iraunkorra ezarri horrela.

#### 2. Agenda Local 21 y foro de participación ciudadana

A modo de contextualización, se explica el significado y alcance de la AL21 y la razón de ser del foro de participación ciudadana, cuyo objetivo principal es abrir el proceso a la ciudadanía, dando opción a los/as vecinos/as de Izurtza a que realicen sus aportaciones, peticiones y propuestas en relación a actuaciones de desarrollo sostenible, estableciendo así un canal de comunicación directo entre la población y el Ayuntamiento.

#### 3. Udalaren erantzuna azkeneko foroko proposamenei

2012. urteko foroan herritarrek egindako proposamenak aipatzen dira eta Udalak 2013. urtean zehar proposamen horiei emandako erantzuna zein izan den azaltzen da banan-banan.

- **Udaletxe barruan CDak birziklitzeko kutxa bat eta pilak birziklitzeko beste kutxa bat jartzea.**

Eskaera aztertu ondoren beharrezkoa ez dela kontsideratzen du Udalak, jada ezarrita dauden kutxak nahikoa direlako.

#### 3. Respuesta del Ayuntamiento a las propuestas del último foro

A continuación, se recuerdan las propuestas realizadas por la ciudadanía en el foro del 2012 y, en relación con las mismas, se explican las actuaciones realizadas desde el Ayuntamiento a lo largo del 2013.

- **Colocar dentro del Ayuntamiento un depósito para el reciclaje de CDs y uno más para pilas.**

Tras analizar la solicitud desde el Ayuntamiento, se considera que los depósitos existentes actualmente son suficientes.

#### 4. Tokiko Ekintza Planaren garapena 2013an zehar

Jarraian aholkularitza enpresak eta Udaleko ordezkariak Tokiko Ekintza Plana dela eta Udalak 2013 urtean zehar burututako ekimenak aipatu eta azalpenak ematen dituzte:

- **Tokiko merkataritzaren sustapena**
  - «Gaztardogi Feria» eta udalerriko saltokietako produktuen kontsumoa jaietako programazio barruko ekimenetan.
  - Botikina.
- **Enpleguaren sustapena**
  - Eskualdeko Enplegu Planean parte hartu du Izurtzako Udalak.
  - Enpleguari loturiko informazioa, tabloian eta web orriaren bitartez.
- **Etxebizitzaren plan integrala**

Jada martxan dagoen etxebizitza sozialen proiektuaz gain, planak ondorengo etxebizitza aukerak jasotzen ditu: 14 aparkalekuan, 14 Arana Jauregian eta 17 diseminatuta.
- **Etxebizitza sozial berrien proiektua**
  - Ideia lehiaketa amaitua eta proiektua esleितua.
  - Obra berriko Etxebizitzen Kooperatiba baten sustapenerako aholkularitza zerbitzua.
  - Biomazaren erabilera berogailu sisteman.
- **Garraio publikoa**

Batzarrak BFA-rekin. 2014eko uztailerako Bizkai Busek 6 zerbitzu ematea aurreikusten da (3 joan eta 3 etorri). Bus geltokiak eraikita daude.

Continental Auto-ren zerbitzua zabaltzea aurreikusten da.
- **Oinezkoentzako bide-segurtasuna**

Trafiko arriskuak gutxitzeko neurri berriak ezartzea eskatu zaio BFA-ri (hots-marrak, seinalizazio handiagoa, radarra). Ezezkoa jaso da.
- **Irisgarritasuna**

Irisgarritasun azterketa egin da udalerrri guztian zehar.

2013ko abenduan neurri zuzentzaileetarako obrak hastekoak dira:

  - Botika pareko pasabidean hobekuntza lanak.
  - Mañaria erreka ondoko pasealekua (Uresandi – Santo Tomas Parkea).

#### 4. Desarrollo del Plan de Acción a lo largo del 2013

Seguidamente la empresa consultora y la representación del Ayuntamiento proceden a citar y explicar las actuaciones ejecutadas a lo largo del 2013 en relación al Plan de Acción Local:

- **Potenciar el comercio local**
  - Celebración de la «Feria Gaztardogi» y consumo de productos elaborados en el municipio dentro del programa de fiestas.
  - Botiquín.
- **Promoción del acceso al empleo**
  - Participación de Izurtza en el Plan de Empleo Comarcal.
  - Información sobre empleo a la ciudadanía mediante tablón y página Web del Ayuntamiento.
- **Plan integral de vivienda**

Además del proyecto de viviendas sociales que ya está en marcha, el plan incluye la posibilidad de otras 14 viviendas en el aparcamiento, 14 en el Palacio Arana y 17 diseminadas.
- **Proyecto de nuevas viviendas sociales**
  - Concurso de ideas finalizado y proyecto adjudicado.
  - Asesoramiento y consultoría en la aplicación del Plan de Acción para la promoción de una Cooperativa de Viviendas de obra nueva.
  - Utilización de biomasa en sistema de calefacción.
- **Servicio de transporte público**

Reuniones con DFB. Para julio del 2014 se prevé la entrada de Bizkai Bus con 6 servicios (3 de ida y 3 de vuelta). Las paradas de autobús están ya construidas.

Previsto ampliación del servicio de Continental Auto.
- **Seguridad vial para peatones**

Se ha solicitado a la DFB aplicación de nuevas medidas para minimizar riesgos de tráfico (bandas sonoras, mayor señalización, radar). Solicitud denegada.
- **Accesibilidad**

Estudio de accesibilidad realizado a lo largo de todo el municipio.

Hay previsión de inicio de aplicación de medidas correctoras en diciembre de 2013:

  - Mejora de paso en acceso frente a la botica.
  - Itinerario de ocio junto al río Mañaria (Uresandi - Parque Santo Tomás).

- **Hondakinak**

- Papererako edukiontzia erabileraren inguruko informazio/sentsibilizazio kanpaina.
- Auto-konposterako programan parte hartzen duten familiei jarraipena egin zaie.
- Herritar batek hondakinen birziklapen mailari buruzko datuak eskatzen ditu; datu horiek Mankomunitateak lantzen dituela eta interesatuak eskuratzeko moduan ipiniko direla esaten zaio.

- **Argiteria publikoa**

Burututako inspektzioaren ondorioz aurkitutako arazoak konpondu dira. Kontsumo baxuko bonbillak jartzen dira.

- **Zaraten kontrola**

BFA-ak eskatutako zaraten kontrolerako ikerketa burutu da.

- **Herriko guneen hobekuntza**

Jubilatuaren lokalean hobekuntza lanak burutu dira.

- **Residuos**

- Campaña información /sensibilización uso correcto contenedor de papel.
- Seguimiento familias programa auto compostaje.
- Un ciudadano solicita datos sobre el nivel de reciclaje de residuos y se le señala que tales datos se gestionan desde la Mancomunidad y que estarán accesibles a aquellas personas que estén interesadas.

- **Alumbrado público**

Subsanación de deficiencias en alumbrado público a consecuencia de la inspección realizada. Colocación bombillas de bajo consumo.

- **Control de ruidos**

Realizado estudio de control de ruidos exigido por la DFB.

- **Mejora espacio urbano**

Se han llevado a cabo mejoras en el local de jubilados.

## 5. Mankomunitatetik sustatutako ekintza iraunkorrak

Mankomunitatetik jasagarritasun iraunkorrari lotuta bideratzen diren programa eta zerbitzuak aipatzen dira eta, eskualdeko herrietan eragiten duten neurrian, horien inguruko azalpenak ematen dira:

- **ESKOLAKO AGENDA 21**

Eskualdeko ikastetxe desberdinetan Tokiko Agenda 21 lantzeko programa sektoriala da. Gaur egun, 16 ikastetxe daude sartuta. 2014ean programara ikastetxe berriak erakartzeko lana egingo da eta ekintzak antolatzen jarraituko da (topaketak, bisitak...)

- **HIRI HONDAKINEN BILKETARAKO ZERBITZUA**

Hondakin hauen bilketa sistema hobetzeko helburuarekin, bilketa, auzoetako sarreretan eratu diren irletetan zentralizatu da, edukiontzi mota desberdinak bertan ipiniz. Zerbitzu honen jarraipena egingo da eta hondakinak murriztu eta hobeto birziklatzeko herritarren sentsibilizazioa landuko da.

- **AIREAREN KALITATEA PROIEKTUA**

Airearen kalitatea aztertzeko bi kanpaina egin dira udalerririk desberdinetan neurgailuak ipiniz.

Saiora bertaratu den herritar batek proiektu honen emaitzak ezagutzeko interesa azaldu du. Udaleko teknikariak adierazi dio emaitzak ez dituela Udalak oraindik baina eskuratzeko dituen informazioa luzatuko zaiola.

## 5. Acciones sostenibles impulsados desde la Mancomunidad

Se mencionan y explican brevemente los programas y servicios ofrecidos por la Mancomunidad de la Merindad de Durango que, de forma directa o indirecta, inciden en los municipios de la comarca:

- **AGENDA 21 ESCOLAR**

Es un programa sectorial para trabajar la Agenda Local 21 en los centros educativos de la comarca. Actualmente, 16 centros educativos están inmersos en este programa. En 2014 se tratarán de atraer nuevos centros al programa y se seguirán organizando actividades (encuentros, visitas...)

- **SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS URBANOS**

Con el objetivo de mejorar el sistema de recogida de estos residuos, la recogida se ha centralizado isletas que concentran contenedores de distintos tipos a la entrada de los barrios.

Se hará seguimiento de este servicio y se trabajará la sensibilización de la ciudadanía para reducir y mejorar el reciclaje de residuos.

- **PROYECTO DE CALIDAD DEL AIRE**

Se han realizado dos campañas para analizar la calidad del aire, instalando medidores en distintos municipios.

Uno de los participantes muestra interés en conocer los resultados de dichas mediciones; un técnico municipal contesta que el Ayuntamiento todavía no dispone de los resultados pero que cuando los tengan procederán a su difusión.

- **ENPRESENTZAKO INGURUMEN AHOLKULARITZA**  
Mankomunitateko enpresetan lan egiteko modu jasangarria sustatzeko helburuarekin, 2013an enpresa desberdinekin egin da lan eta ingurumena babesteko eta ekoizpen-modu jasangarriak sustatzeko aholkularitza eskaini zaie.
- **BERRERABILI EDUKIONTZI BERRIAREN EZARPENA**  
Berrerabili daitezkeen arropa, oinetako, etxetresna elektrikoak eta antzekoak biltzeko, edukiontzi berri bereziak ipini dira.  
Oro har, esaten da edukiontzi desberdinen eta bereziki, berrerabili edukiontzia inguruko informazioa hobetu zabaldu behar dela herritarren artean, hondakinen sailkapena hobetu ahal izateko.
- **BESTELAKO ZERBITZUAK**  
Aipatu hemen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Pertsona Nagusien Dinamizazio Zerbitzua, Droga mendekotasunaren prebentzio zerbitzua eta Behargintza.

- **ASESORAMIENTO AMBIENTAL A EMPRESAS**  
Con el objetivo de promover un modo de producción sostenible en las empresas de la Mancomunidad, a lo largo del 2013 se ha trabajado con distintas empresas ofreciéndoles asesoramiento para proteger el medio ambiente y promover modos de producción sostenibles.
- **IMPLANTACIÓN DEL NUEVO CONTENEDOR BERRERABILI**  
Se han instalado nuevos contenedores específicos para la recogida de ropa, calzado, pequeños electrodomésticos y similares que se pueden reutilizar.  
En general, se señala que es necesario difundir mejor entre la ciudadanía la información sobre los distintos tipos de contenedores de residuos y en especial del contenedor berrerabili, con el fin de mejorar la clasificación de residuos.
- **OTROS SERVICIOS**  
Mencionar los Servicios Sociales de Base, Servicio de Dinamización de Personas Mayores, Servicio de Prevención de Drogodependencias y Behargintza.

## 6. 2014rako aurreikusitako ekintzak

Jarraian 2014. urtean, Tokiko Agenda 21 proiektuarekin lotuta, Udalak aurrera eramatea aurreikusten dituen ekintzak aipatzen dira:

- UR HORNIKETA SAREA ELIZALDE AUZOAN (15.000 EURO)
- HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) (21.000 EURO)
- ETXEBIZITZA BERRIEN PROIEKTUA (13.000 EURO)
- OBRA ETA INBERTSIOAK – ARBIZOLEA INDUSTRIA POLIGONOAREN URBANIZAZIO LANAK (22.000 EUROS)
- BIDE PROIEKTUA, ESPALOIAK ETA OINEZKOEN PASEOA (36.200 EURO)
- INBERTSIOAK AZPIEGITURETAN (FRONTOIA ETA BESTELAKOAK) (22.000 EURO)
- BIDEEN KONPONKETAK (ARBIZOLEA-LEZARTZA PASEOA; BIBEROKO ITURRIAREN BERRESKURAPEN LANAK) (22.000 EURO)

## 6. Acciones previstas para el 2014

A continuación se citan las acciones que el Ayuntamiento prevé que se van a llevar a cabo en el 2014 en torno a la Agenda Local 21:

- INVERSIÓN EN RED DE ABASTECIMIENTO BARRIO ELIZALDE (15.000 EUROS)
- PGOU (Plan General de Ordenación Urbana) (21.000 EUROS)
- PROYECTO EJECUCIÓN VIVIENDAS (13.000 EUROS)
- OBRAS E INVERSIONES – URBANIZACIÓN POLÍGONO INDUSTRIAL ARBIZOLEA (22.000 EUROS)
- PROYECTO VIAL, ACERAS Y PASEO PEATONAL (36.200 EUROS)
- INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURAS (FRONTÓN Y OTROS) (22.000 EUROS)
- REPARACIÓN CAMINOS (PASEO ARBIZOLEA-LEZARTZA; RECUPERACIÓN FUENTE VIVERO) (22.000 EUROS)

## 7. Foroko parte-hartzaileek proposatutako ekintzak

Herritarrei hitza ematen zaie Tokiko Agenda 21aren inguruan euren ekarpenak egiteko. Horren ondorioz, ondorengo proposamenak jasotzen dira:

1. Errotzonda bat egiteko eskatzen da gasolindegia ondoan. Horretarako beharrezkoa den Bizkaiko Foru Aldundiaren inplikazio ekonomikoa lortzea oso zaila izan arren, Udala gai hau kudeatzen jarraitzekotan gelditu da.
2. Izurtzako bariantea egiteko eskaera kudeatzen jarraituko du Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, momentu honetan horretarako baliabiderik ez dela aurreikusten jakin arren.
3. Herria zeharkatzen duen 2623 errepidean ibilgailuen abiadura murrizteko neurriak ipintzeko eskaera kudeatzen jarraituko du Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean: semaforo eta zebra-bide gehiago, errepide ondoan hots-marrak.
4. Onartutako 14 etxebizitza sozialak egiteko proiektua gauzatzeko eskatzen da.
5. Herriko adineko eta jubilatuena bizi-kalitatea hobetzeko euren arteko harremanak eta bizitza dinamizatu beharra dagoela ikusten da. Horretarako, Udalak jubilatuena elkarteari eta euren lokalari laguntza eskaintzea proposatzen da, elkarlanean oinarrituta.
6. Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgotik kudeatzen den Gaztedi Planaren jarraipenean inplikatze eta Plan horretatik bideratuko diren ekimen desberdinen inguruko informazioa herritarren artean zabaltzeko proposatzen zaio Udalari.

## 7. Propuestas de acciones de los participantes en el foro

A continuación, se invita a los ciudadanos y ciudadanas a que realicen sus aportaciones en torno a la Agenda Local 21. Así, se realizan y recogen las siguientes propuestas:

1. Se solicita la construcción de una rotonda al lado de la gasolinera. Aunque se ve complicado obtener la implicación económica necesaria por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, desde el Ayuntamiento se continuará gestionando este tema.
2. Se continuará también gestionando la solicitud de subvención para la construcción de las variantes de Izurtza, aun sabiendo que actualmente no hay previsto recurso alguno para ello.
3. El Ayuntamiento dará continuidad a la gestión de la petición para la instalación de nuevas medidas que ralenticen la velocidad del tráfico en la carretera 2623: mayor número de semáforos y pasos de cebra, y bandas sonoras.
4. Se solicita por parte de las personas asistentes que el Ayuntamiento ejecute la obra aprobada para construir 14 viviendas sociales.
5. Se considera necesario incidir en la calidad de vida de las personas jubiladas y mayores del municipio, dinamizando sus relaciones y su actividad diaria. Para ello, se propone que el Ayto. colabore en la ayuda a la asociación de personas jubiladas y en el mantenimiento de su local.
6. Se propone al Ayuntamiento su implicación en el Plan Udal Gaztedi, promovido por la Diputación Foral de Bizkaia y que se gestiona desde la Mancomunidad de la Merindad de Durango, para su seguimiento y la difusión de la información de las actuaciones que se llevarán a cabo dentro del citado plan entre la ciudadanía.